



Iruñeko Seat Landaben lantegian 'Polo' modeloetarako industria lagungarria egingo da

Volkswagenek 100.000 milioi inbertituko ditu Nafarroan

Iruñeko lantegian 'Polo' modeloaren industria lagungarria kokatuko da

Volkswagen germaniar ibilgailu enpresak 100.000 milioi pezetako (5.000 milioi libera) inbertsioa egingo du Nafarroako Seat Landabeneko faktorian, Nafarroako Gobernuak iturriek atzo jakin erazi zuten. Inbertsio egitasmo honen arabera, 'Polo' modeloari dagokion industria lagungarria lantegi honetan egingo da.

IRUÑEA

Carl Hahn Volkswagen konpainiako presidente nagusia Gabriel Urralburu nafar gobernuko presidentearekin bildu zen atzo, Iruñeko Seat Landaben faktoria bisitatu eta gero. Bilera horretan, Alemaniako

konpainiak duen inbertsio egitasmoa egiaztatu zion Urralbururi.

Alemaniako konpainiak inbertituko dituen 100.000 milioiekin, 1993. urtean Iruñeko Seat Landaben lantegiak 1.200 ibilgailu egingo ditu egunean eta 5.000 langile izango ditu.

Volkswageneko presidentek zehaztu zuenez, gaur egun Alemaniako egiten den 'Polo' modeloaren industria lagungarria Nafarroan kokatuko da datozen hilabeteetan.

ALEMANIAN BESTEKO KALITATEA Zentzu honetan, Nafarroako gobernuak negozioak ditu Alemaniako automobilgintzako hamabi enpresarekin herrialde honetan lantegiak eraikitzeke.

Iruñeko Rondasen egin den errepide gurutzeuneak Sat-Volkswagen

taldeak Iruñean duen lantegirako ekarriko duen hobekuntza azpimarratu zuen alemaniar enpresariak, Seat Landaben lantegiko hornitzaileak kokatuko diren 'Los Agustinos' izeneko industrialdearekin errepide bidezko komunikazioak erreztuko dituelako.

Volkswageneko presidentek Iruñeko lantegiaren martxa ona go-raipatu zuen eta Alemaniako ibilgailu faktoriek duten besteko kalitatea lortu duela ziurtatu zuen Urralbururekin izan zuen elkarrizketan.

Azkenik, Urralburuk eskertu egin zion Carl Hahn beronen konpainiak Nafarroan egingo dituen inbertsioengatik, zeren eta «inbertsio horiei esker, Seat Nafarroako lehendabiziko enpresa izateaz gainera, Foru Komunitateko industriaren zuzper-tzaile bilakatuko delako».

Expogas 91 datorren asteazkenean hasiko da Bilboko Erakustazokan

BILBO

Datorren asteazkenean Bilboko Nazioarteko Erakustazokan 'Expogas' gasaren ekipo eta gailuen nazioarteko erakusteta hasiko da. Ihardunaldi hauen helburua gas alorra zuzpertzeta da, batipat profesionalak eta kontsumitzaileen artean.

Bertan, Estatu espainiarra eta nazioarteko gas eta petroliotik ateratako produktuen garraio eta banakuntzan aritzen diren enpresak hartuko dute parte. Partaide-tza izango dute gainera hustiaketa, banaketa eta kontsumorako industri laguntzaileek.

Expogas erakusketarako Atlantiar Ardatzeko hainbat puntutatik etortzeko bidaiak antolatuta dira. Guztira, 90 estandek beteko dituzte Bilboko Erakustazokak duen 3.400 metro karratuko zabalera eta 181 enpresek

euren produktuak eta zerbitzuak jarriko dituzte erakusgai.

Erakusketan ihardunaldi teknikoak garatuko dira Euskal Herriko Unibertsitateak, Favi, Naturgas, Repsol, EMAHA/CADEM, Ascovi eta Conaif erakunde eta elkarten eskutik. Ekitaldi teknikoaren artean honako hauek egongo dira: 'Gas naturalaren banakuntza sistema Espainian', 'Gas Naturala eta industri erabilpenak', 'Gas naturala, butanoa eta propa-noaren ezagupen eta ezaugarriak', 'Kontsumo-kostua eta beste energiekiko ezberdintasunak', 'EAEko kogenerazio ahalmena eta laguntza tekniko-ekonomikoak' eta, azkenik, 'Gasaren aurrikuspenak eta merkatu berriak'.


Erakustaldi hau profesionalei ezezik kontsumitzaileei ere zuzenduta dagoela ziurtatu dute Erakustazokako arduradunek.

SEKaren VII kongresuak azpiegituren erreformari ekingo dio aste honetan

BILBO

Sindikatuaren Europako Konfederakundeak (SEK) atzo hasi eta ostirala bitartean Luxenburguren burutuko duen kongresuan bere azpiegituren erreforma sakona aztertuko du. Konfederakundeko VII kongresua den honetatik berrikuntza garrantzitsuak atera daitezke, sindikatu partaideen koordinakundea izatetik zuzendaritza organua izatera pasa baitaiteke.

Europako 21 estatuko 41 sindikatu biltzen dituen SEKek 43 milioi langile barneratzen ditu. Kongresu honetan azpiegituren erreformaz gain, Europako merkatu batuaren aurrean hartu beharreko lan prozedura neurriak ere aztertuko dira. Europako espazio ekonomikoa eta daukan gizarte dimentsioa, Ekialdeko herrialdeen prozesu politikoarekin batera, eztabaidagai izango dira kongresuan.



Jose Elorrieta.

SEK VII kongresuan parte hartzeak Luxenburguren aurkitzen da ELA sindikatuko idazkari nagusia den Jose Elorrieta. ELA kongresuaren garrantzia azpimarratu du, «bertan benetako Europako Konfe-

derakundea sortzeko baldintzak eztabaidatuko bait dira. Horrela sektorekako azpiegitura osatzen duten batzordeak eskubide guztiekin sartuko dira SEKaren azpiegiturretan».

Batzorde exekutiboak, orainarte bezala, epe labur eta ertainerako politika zehaztuko du eta datorren kongresutik aurrera eraginkorrago izango den organu berri bat eratuko du.

KARGU BERRIEN HAUTAKETA Aipaturiko gaietat gain, SEK VII kongresuak lehendakari eta idazkari nagusiak hautatuko ditu. Lehendakariararako hautagai bakarra dago, Norman Willis britaniarra. Idazkari nagusi izateko bi hautagai daude, Johan Van Res holandarra eta Emilio Gabaglio italiarra. Hautagai biak SEK izakera sozialdemokrataren ildoan daude, baina italiarrak aukera progresistagoak ordezkatzen ditu.

Renfeko langileek ordubeteko lan uzteei ekingo diete gaur

DONOSTIA

Estatuko trenbide eta aire garraio enpresa publikoetan greba ugari izango dira maiatzaren bigarren hamabostalditik aurrera. Horrela, Renfeko langileek ordubeteko lan geldialdiak burutuko dituzte gaur, etzi eta biharamunean, hilaren 14, 15 eta 16an hain zuzen, eta egun osokoa —24 ordukoa— ostiraletan hilaren 17an eta 24ean. Hirugarren greba fase honetan, aurreko bietan bezala, lan geldialdiak ordubetekoak izango dira goizalde, arratsalde eta gaueko lan txandetan.

Renfeko grebaren bigarren fasean enpresak egin zuen azken eskaintza zela medio sindikatuak lanari ekitea erabaki bazuten ere, oraingo honetan langileen dietak eta soldata masa zehazterakoan sortu da desakordioa sindikatuen eskakizunak eta enpresaren eskaintzaren artean.

Renfeko enpresa batzordeak % 7ko soldata igoera eskatzen du, lan-sariak aparte; sei hilabetero 30.000 pezetako produktibitate sariak 1991. urtean eta 50.000 pezetakoak 1992an eta 3.240 pezetako dietak eta leku aldatzeengatik.

Enpresako zuzendaritzak, bestal-

de, % 8,5eko soldata igoera orokorra eskaintzen du dietak sartuta. Dietak eta desplazamendu kostuak soldata igoeratik 2 puntu jaitsiz ordaindu nahi ditu Renfeko zuzendaritzak. Ondorioz, % 6,5eko soldata igoera erreala eskaintzen du.

FEVE-N ERE GREBAK EVEko langileek ere lau egunetako grebak burutuko dituzte datozen 17, 20, 22 eta 24ean. CCOO eta UGT sindikatuek aditzera eman dutenez, soldata igoerak eta enpresak ezarri nahi dituen arau berriek eragin dute negoziazioen haustura. Zuzendaritzaren eskaintza Renfekoarena baino % 2,5 baxuagoa da, sindikatuen arabera. Enpresak, bere aldetik, sindikatuei «eskaintza interesgarria» egin diela ziurtatu zuen.

Bide Estuko Trenbideetako langileek egun osoko greba egingo dute maiatzaren 17an eta 24ean, Renfekoekin batera, eta lau ordukoak —goiz eta arratsaldeko 7etatik 9etara— hilaren 20an eta 22an.

Azkenik, Iberia eta Aviaco abioi enpresa publikoetako langileek ere greba egingo dute maiatzaren 17an eta 24ean, azken egun horretan Iberiakoak bakarrik.



Renfeko grebak tren bidaiak oztopatuko ditu berriro.